

Kaixo,

Laster dira hemen neguko oporrak eta horrekin batera, Dobera Euskara Elkarteak primerako bi eskaintza egin nahi dizkie herriko haur eta familiei!

1. NEGULEKUAK: neguko oporretan euskaraz gozatzeko ekimena da. Negulekuak abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra bitartean egingo dira, astelehenetik ostiralera, goizeko 09:00etatik 13:30etara. Ekimena, 3 eta 12 urte bitarteko haurrei (2009-2018 artean jaiotakoak) zuzendutakoa da. Bertan, begiraleekin batera hainbat ekintza egiteko aukera izaten ohi da: ipuin kontakizunak, tailerrak, jolasak, kantu saioak, irteera txikiak...

Bi talde osatuko dira: bata Hernanin eta bestea Ereñotzun.

Parte hartu nahi izanez gero, izen emate epea irekita dago abenduaren 16ra arte, [hemen](#). Aste bakarrerako (60€ - Doberako bazkideak 50€) edota egun guztietarako (110€ - bazkideak 90€) eman daiteke izena. Hala ere, kontuz ibili, kopuruak mugatuak dira eta!

**Izena eman nahi izanez gero, dirua ez dadila arazoa izan, Zerbitzu Sozialak laguntzeko prest daude eta. Horretarako, Zerbitzu Sozialetan hitzordua hartzea beharrezkoa da.

2. OPORRAK FAMILIAN ETA EUSKARAZ: familian, hizkuntzaren transmisioan eragiteko ekintza ezberdinak antolatu ditugu. Haurrak eta helduak (guraso, aiton-amonak...) elkarrekin egiteko ekintzak dira:

- **Abenduak 26 edo urtarrilak 2: Hi selfie! herrian zehar.** Bi igandeetan egingo da, abenduaren 26an eta urtarrilaren 2an. Bi saioak berdina izango dira. Jolasari, 11:00etan emango zaio hasiera Udaletxeko arkupean. Helburua: jasotzen duten argazkiaren erreproduzioa egitea, ahalik eta ondoen. Horretarako argazkia herriko zein txokoetan dagoen aterata ere kontutan izan beharko dute. Ezinbestekoa izango da talde bakoitzean telefono mugikor bat egotea

Jolasean, adin guztietako herritarrek hartu dezakete parte: lagun taldeak, familiak... Taldeak 3-6 kidez osatuak izango dira. Eta 12 urtetik beherakoak, gutxienez adin nagusikoa den kide batekin aritu beharko dute. Egun bakoitzeko, gehienez, 10 talde arituko dira jolasean.

Sariak ere egongo dira: bat argazki "onena" ateratzen duen taldeari emango zaio, eta bestea, parte hartzaile guztien artean zozketa egingo da. (Igande bakoitzeko 2 sari).

- **Abenduak 28: Eskulanen tailerra.** 2 txanda egingo dira, lehenengoa 10:00etan eta bigarrena 11:30etan, Atsegindegian. Izena emateko orduan 2-3 eskulanen artean bat aukeratu beharko da. Tailerra 3 - 12 urte bitarteko haurrentzako izango da, betiere heldu batekin arituko direlarik. Umeko 2€ ordaindu beharko dira, eta Doberako bazkideentzako doakoa izango da.

- **Abenduak 30: Euskal Zumba,** 11:00etan Atsegindegian. Doberako begiraleek gidatutako saioa izango da, eta herritar guztiei dado zuzenduta.

- **Urtarrilak 4: Buruarinen tailerra.** 10:30etan Atsegindegian. Tailerra 3 - 12 urte bitarteko haurrentzako izango da, betiere heldu batekin arituko direlarik. Umek bere buruarina egin eta etxera eramateko aukera izango dute 10€-ren truke (bazkideak 8€).

- **Urtarrilak 7: Talde jolasak.** 11:00etan Atsegindegian. Doberako begiraleek gidatutako talde jolasetan heldu zein haurrek primeran pasatzeko aukera izango dute.

Ekintza bakoitzean parte hartzeko aurretik izena eman behar da: dobera@dobera.eus helbidera idatzita edota 662 406 692 telefonoan. Kopuruak mugatuak dira.

Negu honetan ez dugu aspertzeko tarterik izango...

Animatu eta goazen haurrak eta helduak elkarrekin gozatzera!

